

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Kattalin Garmendia Albizu

*Donostia,
Gipuzkoa
(1938)*

Aurkibidea



Biografia



Martuteneko Garrostegi baserrian jaio zen, hura Altza herriaren zati zenean. Baina Arrieta baserrian bizi izan da umetatik. Sei senide ziren.

Ama Beasaingoa zuten, eta aita Argentinan jaio zen, eta gero Garrostegin bizi. Amak berdura eta loreak eramaten zituen Bretxara. Aita Altuna marmol-lantegian zebilen lanean, Egian. Baliarrainera asko joaten ziren, senitartekoengana.

Martuteneko eskola publikoan ikasi zuen. Josten ere aritu zen. 19 urterekin Tabakaleran hasi zen lanean, eta ezkondu arte jardun zuen han. Etxera ezkondu zen. Miren ahizparekin batera egin du kontu-saioa.

Zintak

DON-102

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-13
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Garrostegi eta Ubako Ama Birjina

- **Erref:** DON-102/003
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:01:34. **Bukatu:** 00:04:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Garrostegi baserrian jaio ziren, Martutenen. Miren jaio zenean Altza Donostia zen. Donostiarra sentitzen da. Martutenen egiten zuten bizimodua, ez Altzan. Garrostegi non dagoen. Inguruko baserriak. Ubako Ama Birjina.

2. Eskolan erdaraz, etxean euskaraz

- **Erref:** DON-102/006
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:06:37. **Bukatu:** 00:09:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Plazara joaten zen ama, berdurarekin eta loreekin. Sei senide dira. Martuteneko eskola publikoan ibili ziren, Maria Teresa Diazekin. Erdaraz. Ama Beasaingoa zen, eta aita Argentinan jaioa baina Garrostegin hazia.

3. Umetako jolasak

- **Erref:** DON-102/009
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:11:12. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Umetako jolasak. Pilota, txingoak. Aitak marmolezko txingoak ekartzen zizkien lantegitik. Kilker bila, ziriarekin.

4. Udan Baliarrainera

- **Erref:** DON-102/011
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:13:20. **Bukatu:** 00:16:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak

Laburpena:

<p>Baliarrainen bizi ziren aitona-amonak eta sarri joaten ziren, udan. Errekan bainatzen ziren. Karramarroak harrapatzen. Marrubiak. Animaliak zituzten.</p>

5. Etxeko garbitasuna

- **Erref:** DON-102/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:17:19. **Bukatu:** 00:19:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxeko lanak. Asteburuan garbitasuna egiten zuten, eta bazkalostean sukaldea jaso egunero. Argizaria eta alanbrea. Txapa garbitzea.

6. Loreak Bretxara

- **Erref:** DON-102/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:21:34. **Bukatu:** 00:24:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Loreak saltzen zituzten. Lore motak. Krisantemoak. Zentroak, koroak... egiten zituzten Domu Santu Egunerako. Bretxara eramaten zituen amak, enkarguz. Etxeko haziak.</p>

7. Maiatzeko loreak

- **Erref:** DON-102/019
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:28:29. **Bukatu:** 00:31:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Igande arratsaldetan irteten ziren. Bezperetara joaten ziren, Martuteneko parrokiara. Maiatzeko loreak. Korura joan behar ziren aitzakiarekin, Bionara joaten ziren.

8. Mutilekin dantza egitea debekatuta

- **Erref:** DON-102/022
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:32:44. **Bukatu:** 00:35:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

<p>Dantza lotua debekatuta zuten Mariaren alabek. Baina ez zuten errespetatzen, eta zigortu egiten zituzten. Hernanira dantzara. Kattalin, etxeko jostuna eta ile apaintzailea.</p>

Transkripzioa

-Miren: Ez dantzaik... ez ziguten uzten dantza iten mutillakin... eta holako gauzak bazian "por ser hija de Maria". Hortan... hortan´e bazian debekuak.
-Dantza lotua debekatuta zeon?
-Miren: Bai, bai.

-Eta errespetatzen zenuten zuek debekua?

-Miren: Ez. Ezta batere.

-Kattalin: Bueno, ez genun... ez genun izaten okasio haundik´e... ba festa... Martuteneko festatan.

-Miren: Martuteneko festatan, eta Hernania juten giñenen?

-Kattalin: A bai, bai. Hernania´e juten giñen, bai. Ez ziguten uzten, e? Baiño...

-Miren: Ateatzen giñan... Igande bat ateatzen giñan ta beste bat zigortuta, juten giñan plaza Konstituziora. Zeatik plaza Konstituzioan iten zan dantza... euskal, euskal dantza.

-Kattalin: Euskal dantzak eoten zien.

-Miren: Eta orduan ama enteatzan zan, eta: "Zigortuta, hurrengo iganden ez zoazte ateatzea. Ateatze ezkeoz jun behar zeate e, plaza Konstituzioa". Bueno, plaza Konstituzioa. Igande bat hareia, bestean Hernania, igande bat hareia, bestetan Hernania... Gurea zan dantza itea ta juerga ittea. Juerga... ondo pasatzea, "vaya". Txorona iñez, baiñan...

-Eta dantzan nun ikasi zenuten?

-Kattalin: Nun?

-Zuen gisara, etxian?

-Kattalin: Bai, bai. Etxian o hoi ba... plaza juten giñanian o...

-Miren: Bai.

-Eta Hernanira jende asko juten zan, dantzara?

-Kattalin: Askok, asko. Askok. Juten zian trenak, baiño zintzilika juten zian trenak. Ta tranbiak eta... dena, bai.

-Miren: Gero autobusak´e jarri zituzten. Tranbia kendu zanen jarriko zittuzten autobusak...

-Kattalin: Bai ...

-Miren: Baiño trena juten zan dana zintzilika jendea, e!

-Eta han, plazan?

-Kattalin: Bai, Tilosetan.

-Tilosetan?

-Kattalin: Bai. Gure gehiyen-gehiyena gue gazte zean... han pasa deu, Tilosetako... bai.

-Eta dotore jantzita jungo ziñeten hara...

-Kattalin: Ahal genduna itten genun, e! Bai, bai, bai, ahal genduna itten genun.

-Miren: Nei Kattaliñek josten zizkin erropak. Kattaliñek josten zizkin soiñekoak-ta, gonak-eta... Alkandorak´e bai ta... Nik bordatu itten nun, baiña Kattaliñek josten zun, bai.

-Eta illia-eta?

-Miren: A, hoi´re Kattaliñek.

-Kattalin: Hoi´e nik.

-Hori´re zuk?

-Kattalin: Bai, eske nei asko-asko gustatu izandu zait beti ileko zea, [...]. Juten nitzan pelukeia, ikusten nun pelukerak nola lan iten zun, eta etxea etorri, eta denai e... itten nioten, eta ne amai´e bai. Nere ama´de bueno... gutxi-gutxitan jungo zan pelukeia. Dena beti-beti neonek iten niyon.

-Eta zer zeon orduan modan? Ze orrazkera-edo?

-Kattalin: Bueno, kardatuakin ta /da/... Ille kardatua asko behintzat...

-Miren: "A lo garçon".

-"A lo garçon"?

-Kattalin: Baiño kardatua´de asko.

-Miren: Bai.

9. Tabakaleran lanean: zigarroak eta puroak

- **Erref:** DON-102/026
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:38:44. **Bukatu:** 00:42:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Kattalin 19rekin hasi zen lanean eta Miren 17rekin. Aitak zerbitzatzera bidali nahi zituen, amak ez. Donostiako Tabakaleran hasi ziren. Zigarroak egiten, makinan, eta kaxetan jartzen. Hika hitz egiten dute. Puroak eskuz egiten ziren. Tabako markak.</p>

Transkripzioa

-Eta zuek, e, lanian gazte hasi ziñeten?

-Kattalin: Ba nik... hemeretzi urte nittunian.

-Miren: Nik hamazazpi.

-Hamazazpi? Eta biyok Tabakaleran hasi ziñeten?

-Kattalin: Bai, bai. Aitak, aitak nahi zun serbitzea bialdu, "benga, bialdu itzazu serbitzea, bialdu itzazu, ikasi dezatela! Bialdu itzazu!", ta amak ez zun nahi izaten. Baiña klaro ya hemeretzi urte ta hamazazpi urte... ba zeozer itten hasi behar giñan. Nahiz ta ordu arte ba Kattalin josten, ni bordatzen eta etxeko lanak-eta itten ta hola, baiñan ya edade bat ailleautu zan, ta amak esan zun, ba zeozer... eta, bueno, hasi giñan Tabakaleran, biok alkarrekin hasi giñan, ta biok alkarrekin egondu giñan ere ia denboa guztian makina berdiñean. Han ere biok alkarrekin eondu giñan.

-Ta ze lan iten zenuten han?

-Miren: Lenbiziko eunetan nik behiñik behin zigarroak biltzen, zean, um... zigarro iten, "o sea" bota hautsa makinai, ta ateatzen zan ya zigarroa iña. Eta...

-Kattalin: Beti in deu hoi, ez?

-Miren: Gero, ez, gero zigarroa jarrita, ta zea, kajetan atera. Gero txukunxeo... pixkat garbiagua hunan.

-Kattalin: Bai, ba nik...

-Miren. Pixka bat garbiagua hunan, itten genunen ya paketea.

-Kattalin: Eta hi pasa hitzenan haruntza?

Miren: Lehenbizi ni zigarroa iten eon nitxonan, "con las hermanas Aranburu".

-Kattalin: A, bai?

-Miren: Bai, liadoran. Eta geo pasa giñan, pasa...

-Kattalin: Arenkoa... arenko harta. Ni han egon nitxonan ba beti, zeatik nik ez zaukanat ideaikan han egona...

-Miren: Ni pixkaten... eon nitxonan hor. Eta geo ya arenkoa. Arenkoa alkarrekin denboa guztin. Zala jarri ya batea... batea eoten zan zigarroa iña, eta jartzen gendun makinan, eta ateatzen zan ya paketea einda. Eta gero pakete horiek ee eamaten zittuzten beste leku batea, ta han ateatzen zuten ya papera, zelofana jarrita. Ta "ya, ya está".

-Hor, Tabakaleran, garai baten eskuz ere iten zian zigarruak, ez?

-Miren: Zigarroak...

-Kattalin: Zigarroak ez dakit, puruak.

-Puroak?

-Kattalin: Bai, zigarroak ez det uste, e. Ez dakit, igual lehen-lehen... baiño

klaro, gu hasi giñanian... hor ya urte pilla bat zamazkiten han, eta ez dakit, baiña gu hasi giñanian... puruak bai. Baiño purutan ere ez giñan, ez giñan... Behin, hi egon hitzenan?

-Kattalin: Bai.

-Kattalin: Makina estropeatuta zeola o? Ni ez nitxonan behin´e eon.

-Miren: Bai, behin, behin bakarrik.

-Eta nola...

-Miren: Ez, hori zan... klaro, ya puroa etortzen zan eiña, forma ta dena eiña, baiño jarri behar zenion azkeneko kapa. Ordun eukitzen zenun, iten zenun kapa hori jarri, hola pixka bat einda, geo punttak e pixkat ebaki, goraiza batekin, pixkat peatu ta “ya está”. Hori fariasak izaten zian.

-Fariasak?

-Miren: Fariasak.

-Eta tabakoa ze... ze marka iten zian hor?

-Kattalin: Lucky, e...

-Miren: Reno, Celtas.

-Kattalin: Celtas´e bai. Eta besten bat bahunan, e?

-Miren: Bisonte. Bisonte´re bai.

-Kattalin: Bisonte´re bai. Eta besten bat... beste beltzan bat ez hunan?

-Miren: Izaten zan ere bai geo iten zutena zigarroa biltzekoa, hori izaten zan ere bai beste mota bat, beste... paketetxo bat izaten zan ere bai. Ez naiz goatzen ze izena zun, Celtas... ez naiz goatzen ze izena zun.

-Kattalin: Ze Ducados ta hoik geokok dittun, nik uste diñat, ez?

-Miren: Bai.

10. Tabakalera: gehienak emakumeak

- **Erref:** DON-102/028
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:42:33. **Bukatu:** 00:46:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

Tabakalera langile gehienak emakumeak ziren. Gizonen lanak. Sirena. Lan ordutegia. Igandea jai. Soldata. Oinez joaten ziren, aitarekin; Altuna marmol lantegian egiten zuen lana.

Transkripzioa

-Zuek...

-Kattalin: Gehienak emakumiak zian. Bai, ta gizonezkuak zian ba... mekanikuak, makinak-eta martxan jartzen zittuztenak eta arreglatzen zittuztenak... Eta gero bazauden´e bai “mozos” esaten ziotenak, ba e... karrotan ematen zittuztenak behera, zeak... geo ya...

-Miren: Hautsa. Hautsak ematen zittuztenak, geo indako gauzak eamaten zittuztenak... Baiño makina bakoitzean eoten zan mekaniko bat eta bi-hiru emakume. Hiru emakume. Normalki hiru izaten zian. Eta sala bakoitzean lau? Lau eta lau? Lau liadora eta lau... ?

-Kattalin: Lau [...].

-Miren: [...] izango zian sala bakoitzean.

-Eta zenbat sala ziran, asko? Oso haundiya da hori...

-Kattalin: Bai, oso. Oso haundia da, oso hauindiya da, oso oso. Hoi goran ta

gero “es que” beran ere bodegatan... Hoi´de ikaragarriya da, ikaragarriya.

-Miren: Ez zea eon, tabakaleran?

-Ba, baiña ya hutsa zeon... Ez makina-eta...

-Miren: Baiñan beheko bodega hua... Ni ez nitzan izan; uain, geo, jarri dutenean ikusteko hor lehenbizitakoak joan giñan eta... Hua dena ez genun ikusi guk, ez genun ikusita hua.

-Eta horra, lanian hasteko, sirenan bat edo...?

-Miren: Bai.

-Kattalin: Bai.

-Ta nola, ze soiñu zun?

-Kattalin: A, bueno, sirena zea bat, goizeko seietan, sartzeko garaiyan. Eta gero ordu bitan ateatzeko, eta geo...

-Miren: Hamarretan geo.

-Kattalin: Hamarretan, gabian berriz. liiiiiiii... eta ba sirena normal zea bat.

-Miren: Goizeko seietatikan ordu bita; ordu bitatikan hamarreta, bi turno eoten zian; gu eondu giñanean, e. Ez dakit lehenagotikan ez dakit relebotan iten zan...

-Kattalin: Bai, bai, uste det baietz. Hamarretan sartzen zianak´e uste det baziala, e?

-Miren: Ez dakit... ez deu guk ezautu.

-Eta zuek larunbatetan... lana itia tokatu zitzaizuen zuei?

-Miren: Bai, bai, bai. Astelehetikan larunbata arte.

-Kattalin: Nik uste det beti, ez?

-Miren: Igande... bai, bai, bai.

-Kattalin: Gu... ezkondu arte, ta han lana in genun arte... nik uste larunbatian´e bai.

-Miren: Bakarrik igandetan izaten genun guk jai, besterik ezerrez ez genun.

-Eta han, e, soldata ona izaten zan ala...?

-Kattalin: Ez, ez.

-Miren: Mixeri bat.

-Kattalin: Oso oso oso gutxi.

-Miren: Baiña bueno.

-Gogoratzen dezue zenbatekua, gutxi gorabehera?

-Miren: “Dieciocho cincuenta”, hillean. Hemezortzi pezta eta berroeita hamar xentimo.

-Hillean?

-Miren: Hillean.

-Kattalin: Gue amak esaten zun bokadillotako´de ez, zeatikan klaro, bokadilloa eaman behar izaten gendun... ta bokadillotako´de ez, klaro.

-Eta hemendik nola juten ziñaten?

-Miren: Oiñez, mendiz.

-Kattalin: Mendiz, oiñez.

-Miren: Aitakin.

-Kattalin: Aitakin, e. Aitak nola lana iten zun Egian, “o sea que”... Altunanian, ba ordun beakin juten giñan ba... goizeko bostetan etxetik ateata.

-Miren: Bai.

-Aitak lana iten zun tokiyan, e... ze iten zuten, kanposanturako-ta marmolezko...?

-Kattalin: Bai, bai.

-Hilerrietarako lapidak-eta...

-Miren: Bai. Eta bestela´de bai, e. Obratako ta...

-Obratako?

-Miren: Bai, bai.

-Fregaderak-eta?
 -Kattalin: Bai, bai.
 -Orduan elkarrekin juten ziñeten, goizeko seiretarako... Zuek beti txanda bera, goizekua?
 -Kattalin: Ez.
 -Miren: Goiz ta atsalde.
 -Kattalin: Goiz ta atsalde. Batzutan goizetan, beste batzutan ordu bitan.
 -Aste batian bat eta hurrenguan bestia?
 -Miren: Bai, bai.
 -Kattalin: Eta geo ordu bitan ya ordun bai, ordun ya gue gixa juten giñan, oiñez o autobusa hartzen gendun o... Bai, jeneralian autobusa hartzen gendun.

11. Tabakalera: janzkera eta giroa

- **Erref:** DON-102/029
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:46:12. **Bukatu:** 00:49:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Tabakalerako janzkera: bata eta kapela. Atsedeen-aldia. Nondik joaten ziren langileak hara. Martutenetik, oinez. Lan baldintzak. Lan giroa.

12. Tabakalera: gizonentzat, tabakoa

- **Erref:** DON-102/030
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:49:28. **Bukatu:** 00:50:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Gizonezko langileei tabakoa ematen zieten, emakumeei ez; erretzeko tokia ere bazuten, Tabakaleran bertan. Emakume erretzaileak, komunean. Tabernak.</p>

Transkripzioa

-Han, pentsatzen det Tabakaleran lana inda, errexeagua izango zala tabakoa handik merkio edo ateratzia...

-Kattalin: Ez, ez, ezin zan, ez. Bueno, hori ematen zioten ere bai, gizonezkoei ematen zioten. Emakumezkoei ez.

-Miren: Emakumezkoei ez.

-Kattalin: Emakumezkoei ez, sekula ere ez, baiño gizonezkoak izaten zittuzten beren razionamendua. Izaten zuten gizonezkoak, baiña

emakumiak ez.

-Miren: Gizonezkoak zuten ere bai leku bat e.. erretzeko. Han, zea, pasillu batean zan, eta han exeritzen zian eta zigarro erretzen eoten zian. Ez denbora askotan, baiñan bai, eoten zian. Eta emakumeak ez, klaro.

-Ez zeon emakume bakar bat ere erretzen zuna?

-Miren: Erretzen zuenak? Bai.

-Kattalin: Baaai. Bazeuden, baiña komunea juten zian.

-Miren: Komunea jun ta...

-Kattalin: Komunak´e oso haundiyak zian; dena zan oso haundiya, ta oso irikiya, eta egiya esan oso ondo. Eee, baiño emakumiak juten zian haruntza erretzea, bai, bai.

-Lehen diferentzia haundiyak zeuden, ez? Emakumien eta gizonen bizimoduak desberdiñak...

-Miren: Bai, bai, asko.

-Tabernetan ere emakumiak e ezin...

-Kattalin: Ez zitzaigun okurritzen, gui bakarrik taberna batea sartzea, sekula! Sekulan!

13. Baratzeko eta soroko lanak

- **Erref:** DON-102/032
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:52:17. **Bukatu:** 00:54:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Baratzeko tresnak. Aitzurra. Goldea, laia... Txato eta Moro idiekin, Baliarrainen. Besabea. Alperraren gainean joaten ziren.

14. Sua partitzen, etxez etxe

- **Erref:** DON-102/034
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:54:50. **Bukatu:** 00:57:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Pazko egunean sua eta ura bedeinkatzen ziren. Sua partitzen ibiltzen ziren etxez etxe. Propina ematen zuten: ahate arrautzak, gailetak... Baliarrainen kantu eskean ateratzen ziren Gabonetan mutil gazteak. Mutilez mozorrotuta, inauterietan.</p>

15. Ermitak eta ikastetxe erlijiosoak

- **Erref:** DON-102/037
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:01:40. **Bukatu:** 01:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Ubako Ama Birjina. Pazkoa bigarren egunean jende asko etortzen da, umeein. Campos Eliseos mutilen ikastetxe bihurtu zen.</p>

16. Janaria eta kandelak bedeinkatzea

- **Erref:** DON-102/038
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:03:02. **Bukatu:** 01:04:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » San Blas

Laburpena:

San Blas egunean haziak eta janaria bedeinkatzen zituzten, parrobian. Kandelaria egunean, kandelak. Kandelen erabilera.

17. Martuteneko festak

- **Erref:** DON-102/041
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:05:42. **Bukatu:** 01:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Martuteneko festak. Zinta lasterketetan bordatutako zintak jartzen zituzten; bermuta hartzera gonbidatzen zituzten mutilak. Giroa erdalduna. Donostiara joateko joera zuten. Dantzara, Perlara eta Igeldora. Hernanin, mutilek dantza egiteko ordaindu egiten zuten. Kalabazak.

18. Trenbidetik oinez joan zirenekoa, Hernanitik bueltan

- **Erref:** DON-102/042
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:09:51. **Bukatu:** 01:11:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Hernanin ezagututako mutilak nongoak ziren: Astigarraga, Ergobia, Hernani... Goiz etxeratu beharra. Trena beteta etorri, eta oinez joan behar izan zuten behin.

Transkripzioa

-Eta hor, e, mutil asko ezautu zenituzten? Toki askotakuak?

-Kattalin: Toki askotakuak ez, nik uste... nik behintzat gehiyenak Astigarrrakuak. Astigarra, Ergobia... Hernanikuak bertakuak´e bai, e.

-Miren: Bai.

-Kattalin: Baiño gehiyena Astiarrakuak, bai. Haikin askotan, asko ibiltzen giñan Astiarragako kuadrilla batekin.

-Eta, etxian-eta, esaten zizueten “kontuz ibili mutillekin” eta holakorik?

-Kattalin: Bueno, bueno. Beti atea behar gendun... Lenbizikua beatzitarditan genun trena, eta batzuk gelditzen zian... Ordun gaiñea deskansua izaten zan, eta total, ba dantza gutxi itten gendun, ez gendun denboraik izaten... Eta denak gelditzen zian eta guk beti tren hoi hartu behar gendun. Eta behin, goatzen naiz tren haik... epoka hortan, gaiñea, Tolosan ta /da/ Andoaíñen festa izaten dia asko, alde guzitan... eta klaro, ez zituzten /etzituzten/ ba ordun tren asko jartzen, eta Hernanin apeaderoan zai-zai eon, trenan zai, dena bete-bete-beteta, zintzilik etorri, eta ordun zeaik... ezin giñan, ezin giñan io. Oiñez! Trenbidetik, nik ez takit nundik noa, zeatik klaro, hamarretako etxian egon behar gendun. Bestela... hurrengo igandian igual ez giñan ateatzen. Eta bueno, bueno... eske ibillera batzuk, penagarrik, penagarrik ibili behar izan genun... Beti orduakin ta /da/ beti...

19. Beti beldurrez, apaizak zer esango

- **Erref:** DON-102/044
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:12:30. **Bukatu:** 01:15:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

<p>Gazte hasi ziren nobioekin. Ez zen sexuari buruz hitz egiten. Birjinak ezkontzen ziren. Apaizaren kontrola. Beti beldurrez.</p>

Transkripzioa

-Eta nobiyuakin-ta denbora... urte asko iten zian nobiotan, ez, ezkondu aurretik?

-Kattalin: Bai. Ba... bost urte. Ni behintzat... ta hi´re bai, gehiyo igual...

-Miren: Ba lau urte. Ez, lau, lau... ni hemezortzi urtekin hasi nitzan ya. Hemezortzi urtekin ya hasi nitzan nere senarrakin, eta lau urte o ingo genittun... Geo ya ezkondu giñan, bai. [...] Hogeita bi in baiño leno ezkondu nitzan, “o sea que” lau urte, lau urten egondu nitzen ni.

-Kattalin: Ni bost, bost.

-Garai hartan dena pekatu zan.

-Miren: Bueno, dena! Noski.

-Eta zuei nork... esan zizueten... esplikaziyorik edo jaso zenuten nunbaiten, etxian, sexuari buruz eta holako kontuei buruz ala...?

-Miren: Ez gendun... ez zan /etzan/ hitz eiten... Hombre, beti...

-Kattalin: Esaten ziguten beti ba “kontu izan zazute, zeatik...”, e, baiño...

-Miren: Baiña ez. Guk geok bageñekigun ezin zala... ezin zala... gauza asko

ezin ziala ein, oain eiten dian bezela; oain dena libre dute! "O sea que" oain ya... baiñan ez, leno ez zegon /etzegon/, sexo... Hombre, eongo zan!

-Kattalin: Bai, noski.

-Miren: Eongo zan, eongo zan jendea!... Baiñon guk behiñek pein ez gea izan... Gu ezkondu giñan "virgenes, vaya".

-Kattalin: Bai, bai.

-Eta muxu ematia ere bekatu, ala ez?

-Kattalin: Ba hoi ya ez.

-Miren: Hasiera batean bai, Kattalin. Hasiera batean...

-Kattalin: Bueno, hasiera baten...

-Miren: Niri igual urtebete muxuik ez giñan eman, urtebete...

-Kattalin: Bueno, ez diñat esaten, baiño ez, ez kalia eta ez iñon zertan...

-Miren: A, ez, ez...

-Kattalin: ...baiño etxea launtzen ziutenian bai, orduan muxu behintzat bai.

-Miren: Bai, bai, bai.

-Kattalin: Baiño "ya está, con eso se acabó".

-Miren: Bai, bai, bai. Ez zeon /etzeon/ [...]... esaten izut, bueno... eta eskerrak gaiñea, e, zeatik bestela bueno... genden kontrolatuta...! Ba ni oaindik zazpi hillabeteko neola, ya ezkondu giñanean, e... hiru hillabete kostatu zitzaidan geatzea haurdun. Eta ya zazpi hillabeteko neola ya hasi zan gure parroko jauna gal... esaten: "Zer, noiz euki behar dezu haurra?". "Aizu, ni oaindikan zazpi hillabetekoa nago, "asi que" zuk atea kontuk noiz izan behar deten". Holaxe erantzun nion. Ze harek ya pentsatzen zun ni ezkondu nitzala ya enbarazatuta. Zeatik zazpi hillabeteako ai bazan galdezka eta nei hiru hillabete kostatu zitzaidan... ba...

-Okerrenak, okerrenak apaizak, batzutan, ezta?

-Miren: Oiiii, bueno.

-Eta... konfesatzerakuan ere galderak-eta iten zituztela...

-Miren/Kattalin: Bai, bai.

-Norberai burutik pasa gabekuak eta...

-Miren: Bai, bai, bai.

-...apaizak galdetu!

-Miren: Bai, bai. Ez, izan, izandu giñan oso... ez det esango zigortuak baiño... bai ez zizutela uzten zuk nahi zenuna iten ere... "O sea", beti egon behar ziñan bildurrik, beti eon behar ziñan ze esango uten, zer... Ez zakazun /etzakazun/ oaingo askatasuna, ez? Oaingo gehiegizkoa nei iruitzen zait, baiño lehengokoa ere bai... leno ez ziguten /etziguten/ uzten arnasaik hartzen ere.

20. Ezkontzeko, lana utzi behar

- **Erref:** DON-102/049
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:17:21. **Bukatu:** 01:19:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Ezkontzean, lana utzi behar. Etxekoandre bihurtuta. Umeak, emakumeen ardura. Gizonak etxean gutxi egoten ziren.</p>

Transkripzioa

-Ta zuek biyok lana utzi zenuten, ezkontzeko?

-Miren: Bai, ordun e... derriorez utzi behar genun. Ordun firmatuazi iten ziguten papertxo bat esanez ez giñala bueltatuko gehiyo.

-Kattalin: Bueno, alargun gelditzen baldin bagiñan...

-Miren: Ordun bai. Alargun geatzen balin baziñan... baiña orduan ere bost urten edo zan, bost urteko epe batean alargun geatzen baziñan bueltatu lezakezu Tabakalera, baiño bestela ez.

-Kattalin: Ez.

-Miren: Firmatzen zenun paper bat, ezin ziñala ya bueltatu. Hori geo aldatu zan, ez?

-Bai, gero legia aldatu zan.

-Miren: Gero aldatu zala uste det.

-Kattalin: Bai, bai, bai. Bai, asko, jende asko ezkonduakoa, asko zeon...

-Baiña orduan okurritu ere ez lanian jarraitzia...

-Kattalin: Ezta´de pentsatu´de! Etxian geldittu behar gendun. Noski.

-Miren: "Amas de casa".

-Seme-alabak euki ta...

-Kattalin: Bai, bai, bai.

-Miren: Etxeko, etxeko...

-Etxia gobernatu?

-Miren: Etxeko emakumea, bai. Etxeko emakumea: umeak zaindu, eta gizonai dena prestatu eta... eta etxeako.

-Gizonak etxian ez zun...

-Miren: Ezer ez, ezer ez. Ezer ez. Eta geo, gaiña, gizonetakoak mmm... billatzen zuten, e, nahiz ta lana egin, gero billatzen zuten ba edo zala ikastolako... ikastolako billerak. Zenbat ordu eta zenbat eun pasa dittuzten ikastolak aurrea atetzeko!

-Kattalin: Buenooo.

-Miren: E, gero, politikan ere bai... Gero, deportea ere bai... E, orduan etxean haurrak denboa oso gutxi... ba igandetan. Larunbata ta igandetan. Baiño bestela hola asteen zehar gutxi eoten zian etxean. Lana in ondoren hala ere sartzen zian gero gauza askotan.

21. Ikastolen sorrera

- **Erref:** DON-102/050
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 01:19:07. **Bukatu:** 01:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

Ikastolen sorrera. Martuteneko ikastola eta Donostiako Santo Tomas lizeoa.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com